



AKORDIOAK, 2014ko apirilaren 9koa, 2014ko otsailaren 24ko (otsailaren 25eko EHAA, 38 zk.) Ebazpenaz deitutako Udaltzaingoarene behin-behineko agenteen lan-poltsa sortzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai kalifikatzailearena.

Goian aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, ondorengo

ZIURTATZEN DU

2014ko apirilaren 9an izandako bileran, aipatutako Epaimahaiak ondorengo Erabakiak hartu dituela:

LEHENA.- 16087061 NAN zenbakia duen izangaia bazter uztea, 2.1.d. Oinarrien ezarritako baldintza ez betetzeagatik.

BIGARRENA.- Oposizioko hirugarren probako (6.2.c Oinarria) izangaiek lortutako emaitzak argitaratzea, I. Eranskinean agertzen denaren arabera.

HIRUGARRENA.- Oposizioko hiru probak gainditu dituzten pertsonen euskararen ezagutzaren balorazio emaitzak (Zortzigarren oinarria) argitaratzea, II. Eranskinean agertzen denaren arabera.

LAUGARRENA.- Bigarren Erabakian agertzen diren emaitzen aurkako erreklamazioen epea ezartzea; baita ere, Hirugarren Erabakian agertzen diren balorazioen aurkakoa. Epe hori apirilaren 14ra artekoa izango da- astelehena-, 18:00ak arte. Erreklamazio horietarako bide hauek erabili beharko dira: 945 28 67 55 fax zenbakia eta arkauteakademia@hsdi.ej-gv.es posta elektronikoa.

BOSTGARRENA.- Akordio hauek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web orrialdean argitaratzea.

Akordio hauen aurka, izapide-egintza izaera dutenak, ezin izango da administrazio errekurtsorik jarri, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Arkautin 2014ko apirilaren 9an.

Izpta.: **Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria**

